

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

GUARDIAKO UDALA

Behin betiko onespena ematea Guardian euskara arloko dirulaguntzak emateko ordenantzari

Udalbatzak, 2019ko irailaren 12an egindako ohiko bilkuran, erabaki du hasierako onespena ematea Guardian euskararen arloko dirulaguntzak emateko ordenantzari.

Espedientea jendaurrean egon den bitartean —2019ko irailaren 27ko ostiraleko ALHAOn (112. zk.) argitaratu zen hari buruzko iragarkia— ez da erreklamaziorik aurkeztu, eta, beraz, behin betiko onesten da ordenantza, eta indarrean dauden xedapenek agintzen dutena betez, osorik argitaratzen da ordenantza haren testua:

EUSKARA ARLOKO DIRULAGUNTZAK EMATEKO BERARIAZKO ORDENANTZA

1. artikulua. Dirulaguntzaren xedea

Oinarri hauetan arautzen diren dirulaguntzen xedea ondoren zehaztuko diren jarduerak finantzatzea da:

1. Euskara ikasteko bekak, modalitate hauetakoren batean:

– Euskara ikastaroak euskaltegi homologatuetan.

– Euskaltegi homologatuetako udako euskara ikastaro trinkoak, ekainean, uztailean, abuztuan edo irailean egindakoak.

2. Herriaz gaindiko proiektuak finantzatzea: Korrika, Araba Euskaraz...

2. artikulua. Onuradunak

Euskara ikasteko beketarako: 16 urtetik gorako pertsona guztiak, Guardian erroldatuta badaude eta ikastaroak eta barnetegiak egiten badituzte euskara ikasteko.

Herriaz gaindiko proiektuetarako: jarduera horiek langai dituzten elkarteak.

3. artikulua. Aurrekontu zuzkidura

Dirulaguntza hauetarako kopuru hauek ezarri dira:

Bekak: 2.000 euro.

Herriaz gaindiko proiektuak: 600 euro.

4. artikulua. Dirulaguntza emateko prozedura

Dirulaguntzetarako deialdia Alkatetzak egingo du iragarki taulan argitaratuko duen iragarki bidez, salbu eta herriaz gaindiko proiektuetarako.

Eskaerak aurkeztea

Eskaera, eredu ofizialaren arabera egina, Guardiako Udaleko alkate-lehendakariari zuzendu behar zaio. Horretarako, udaleko sarrera erregistroan aurkeztu behar da edo Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan jasotako bideetako bat erabilita. Epea urriaren 1etik 31ra izango da. Eskaerarekin batera agiri hauek ere aurkeztu beharko dira:

Beketarako:

Matrikula ordaindu izanaren frogagiria, bankuak emana.

Euskaltegian matrikulatuta egotearen egiaztagiria, euskaltegiak emana. Barnetegietako ikastaroen kasuan, gastuak xehatu behar dira: irakaskuntza gastuak, eta mantenu-ostatu gastuak.

Gutxienez eskolen ehuneko 75era joan izanaren egiaztagiria, euskaltegiak emanda. Bertaratzea ezin bada justifikatu, ezinbestezko arrazoiengatik izan beharko da eta justifikatuta egon beharko da, dagokion dokumentazioarekin.

Ikastaroa gainditzea.

NANaren fotokopia.

Zinpeko aitortpena egitea, kontzeptu horregatik bestelako laguntzarik jasotzen ez bada.

Dirulaguntza eskatzeko inprimakia udal bulegoetan jaso daiteke edo Guardiako Udalaren web orritik www.laguardia.eus deskargatu.

Eskaerak bide telematikoz aurkeztu ahal izango dira, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak ezarritako moduan.

Prozedura izapidetzea

Organo instruktorea Hezkuntza, Euskara eta Gazteria zinegotzia izango da.

Hauak izango dira instrukzio jarduerak:

Ebazpenerako beharrezko diren txosten guztiak eskatzea.

Eskaerak ebaluatzea; balorazioa hurrengo oinarrian zehaztutako irizpideak, moduak eta lehentasunak kontuan hartuta egingo da.

Behin betiko ebazpen proposamenak honako hauak jaso behar ditu:

Dirulaguntza jasotzeko proposatzen diren eskatzaileen zerrenda.

Dirulaguntza bakoitzaren zenbatekoa.

Interesdunei behin betiko ebazpen proposamena jakinaraziko zaie, eta hamar eguneko epea emango zaie, onartzen duten ala ez esan dezaten.

Ebazpena

Behin betiko ebazpena onartu ostean, alkateak prozedura ebatziko du. Ebazpena arrazoitua izango da eta, betiere, ebazpenaren oinarriak frogatuta geratu behar dira.

Ebazteko eta jakinarazteko gehieneko epea sei hilabetekoa da. Deialdia argitaratzen den unetik hasiko da epea, deialdiak berak ondorioak beste data batera atzeratzen ez baditu. Dirulaguntza emateari buruzko ebazpenak administrazio bidea bukatuko du.

5. artikulua. Onuradunen betebeharrak

Dirulaguntza ematea arrazoitzen duen helburua betetzea, proiektua egitea, jarduera gauzatea edo haren jarrera izatea.

Dirulaguntza ematen duen organoaren aurrean baldintzak betetzen direla justifikatzea, baita dirulaguntza emateko oinarrian izan den jarduera egin dela edo helburua bete dela ere.

Organo eskudunak egiten dituen egiaztapen jardun guztiak onartzea, bai eta kontrol organo eskudunek, estatukoek zein erkidegokoek, finantzak kontrolatzeko eta egiaztatzekeo egiten dituztenak ere. Horrelakoetan, eskatzen zaien informazio guztia eman beharko dute.

Laguntza ematen duen organoari jakinaraztea diruz lagundutako jarduera finantzatzeko beste dirulaguntza, laguntza, diru sarrera edo baliabide batzuk lortu izana.

Jasotako funtsen aplikazioaren egiaztagiria gordetzea, agiri elektronikoak barne, egiaztapen eta kontrol jarduketan xede izan baitaitezke.

6. artikulua. Zenbatekoa

Bekaren zenbatekoa matrikularen kostuaren ehuneko 50 izango da, jasotako eskaeren arabera. Baldin eskaera kopurua dela-eta dirulaguntzen gehieneko zenbatekoak gutxitu behar badira, murrizketa proportzioan ezarriko zaie eskatzaile guztiei.

7. artikulua. Justifikatzea eta kobratzea

Agiri hauek aurkeztu behar zaizkio udalari dirulaguntza jasotzeko:

Bekak:

Eskaera, eredu ofizialaren arabera egina.

Eskolen ehuneko 75era gutxienez bertaratu izanaren frogagiria, euskaltegiak emana, edota bertaratze ehuneko hori ezin bada frogatu, ezinbestezko arrazoiengatik izan beharko da eta dagokion dokumentazioarekin frogatu beharko da.

Ikastaroa gainditzea.

NANaren fotokopia.

Herriaz gaindiko proiektuak:

Eskaera, eredu ofizialaren arabera egina.

Jardueraren memoria.

Laburpen ekonomikoa.

8. artikulua. Dirulaguntza itzultzea

Jasotako dirulaguntza itzuli egin beharko da, eta dirulaguntza ordaindu zenetik itzuli beharra erabaki arte sortutako berandutze interesak eskatuko dira, Dirulaguntzen Lege Orokorrak 38.2. artikuluan xedatutako zenbatekoan.

9. artikulua. Bermerako neurriak

Dirulaguntza ematen duen organoak nahi dituen administrazio kontrolak eta ikuskapenak egin ahal izango ditu aurkeztutako dokumentazioan adierazitako datuak benetakoak diren eta laguntza jasotzeko betekizunak betetzen diren ala ez egiaztatzeko.

Onuradunak ikuskatze horretan laguntzeko betebeharra du, eskatutako datuak emanaz.

10. artikulua. Dirulaguntzen bateragarritasuna

Laguntza horiekin batera beste laguntza edo dirulaguntza batzuk ere eskura daitezke.

Dirulaguntzaren zenbatekoa ezin da inolaz ere izan jardueraren kostua baino handiagoa, bakarrik edo beste dirulaguntza, laguntza, diru sarrera edo baliabide batzuekin batera.

Onuradunak xede bererako beste dirulaguntza, laguntza publiko, diru sarrera edo baliabideren bat lortzen badu, behartuta dago hori jakinaraztera dirulaguntza eman zion organoari. Beste laguntzarik jaso ez bada, hori dioen zinpeko aitortpena aurkeztuko da.

11. artikulua. Indarrean jartzea

Ordenantza hau ALHAOn argitaratu ondoko egunean sartuko da indarrean, nahiz eta eskaerak aurkezteko epea 2020ko urriaren 1ean hasiko den."

Guardia, 2019ko azaroaren 20a

Alkate-lehendakaria

LUCIO CASTAÑEDA MARTÍNEZ DE TREVIÑO